

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko uztailaren 31

Egunkaria


Gehigarri honetan



Bera • Bestarik luzeenak ospatuko dira: bihar hasi eta ortzeguna arte.

Xavier Toubes • «Lanean ariz aurkitzen da zeramika».

Arrasto horiaren atzetik Santiagora



• MIKEL SAIZ

Hainbat tokitatik etorritako erromesak Nafarroako Donejakue Bidea egiten dute egunotan, Galiziarantz doazlea. Lurralde askotatik etorritako erromesak Santiagora doaz, nondik igorotzen den esaten duen gezi horiari jarraituz. Nekeak harrapatzen dituenen, herrialdean dauden bederatzi aterpeetako batean hartzen dute atseden.

Bera • Bestarik luzeenak

Bihartik ortzeguna bitarte, sanestebanak ospatuko dira

Abuztuaren lehen egunetan ospatzen dira sanestebanak Beran. Aurten inoiz baino luzeagoak izanen dira, abuztuaren 2an hasi beharrean bihar bertan hasiko baitira. Musika, dantzak eta ikuskizunak izanen dira egitarauaren ardatzak.

SUZIRIA HERRIKO ETXKO BALKOITIK abuztuaren 2an botako bada ere, besten egitaraua bihartik aitzinera osatuko da. Horrez gain, hamabortz egun hauetan jokatu diren Gazte Jokoteko afaria gaur izanen da, eta gazteak bestarako prest azalduko dira gaur ere. Bihar plater tiraketa, haurren dantza ikuskizunak, Nafarroako jotak eta Altxateko plazako kontzertuak emanen diote hasiera beste. Gaurditik aitzinera Berako Petti, Borrokan eta Gutariko Bat taldeak, eta Voodoo Muzak taldeak ariko dira. Suziria igandean botako da. Ondotik, Herriko Etxeko plazatik abiatuta karrikaz karrika ibiliko dira buruhandiak, erraldoiak eta Zizkuitz txaranga. Ilunabarrean, Gure Txokoa dantza taldeak urteroko dantza jaialdia eskainiko du Eztegar pilotalekuan, 8:00etatik aitzinera. 11:00etan su artifizialen emanaldia izanen da Pirotecnia Zaragozanaren eskutik. Gaurditik aitzinera Altxateko plazan Alaitz eta Maider ariko dira.

Astelehenean San Esteban Eguna ospatuko da. 11:00etan meza nagusia izanen da, eta ondotik Berako makildantzak eta bordondantzak eskainiko dituzte



Plazalako trenak Donostia-Iruñea ibilbidea betetzen zuen.

● ARTXIBOA

Gure Txokoako dantzariak. Ikurina herriko etxeko balkoian paratu eta gero, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak kantuan ariko dira herriko Etxean. Arratsaldean, berriz, ohitura politenetako bat errepikatuko dute dantzariak. Aurrekoa dantzatuko dute 6:00etan plazan, eta neska kapitainaren etxean berendu ondotik, arratsean neskek euren dantza bikotea afaltzera gonbidatuko dute etxera. Mutilak trukean neskaren izena daraman tarta eramane du otordura. Gaurdian Kubako musika eta dantzak jabetuko dira Herriko Etxeko plazan.

Asteartean, goizero bezala, diena izanen da Berako auzoetan. Txistulariak eta gaitariak baserritarren eskerrona jasotzen dute trukean, gosari moduan. Haurrentzako lehenik, eta jubila-tuentzat gero, tren bat ibiliko da

kaleetan barrena, eta eguerdian gazteak bilduko dira herri bazkarian. Migattu adar borobilduak ariko dira Herriko Etxeko plazan 7:00etan, eta 8:00etatik aitzinera Erausian Bortzirietako Gazteen Euskara Taldeak antolatuta bertso poteoa egingen da ostatur ostatu, Estitxu Arozena, Jesus Mari Irazu eta Unai Agirre bertsolariekin. Gaurdian Maixa ta Ixiarreko kideak ariko dira musika jotzen.

Haurren eguna, asteazkenean

Asteazkenean haurren eguna izanen da. Goizko 10:00etan igeriketa txapelketa jokatu da, eta bi ordu beranduago Hortzmuga taldearen *Hortzisauroak* ikuskizuna ikusgai egonen da Altxateko karrikan. Arratsaldeko 4:00etan Kaxerna Aisialdi Taldeak eta Ikastetxeetako guraso elkarteek antolatutako jokuak izanen dira eskolan, eta ondotik Panta Rhei antzerki taldeak *Anbotoko dama*

taularatuko du, jokuak, musika eta antzerkia tartekatuz. Iluntzean, migattuak, gaita joleekin dantza herrikoiak eta Gozategi taldearen emanaldiaz gozatu ahal izanen da.

Bestak ortzegunean bukatuko dira, baina animazioak iraungo du oraindik. Goizero bezala diena izanen da baserrietan, ttikienentzako buruhandiak eta erraldoiak aterako dira, goiz eta arratsaldean puzgarriak, karts autoak eta tren ttikiak izanen dira. Migattuak eta Principe orkestraren dantzaldiarekin akabera emanen zaie beste. Horiez gain, norberak prestatzen duena, Zizkuitz txaranga, eta karrikaz karrikako animazioak osatuko dituzte sanestebanak. Ekitaldi gehiago ere izanen da kalean, baina arratseko giroa izanen da bertze behin, protagonista nagusienetako bat.

→ Jon Abril

Azpirotz

Gaurtik aurrera jaietan da herria

GAUR ARRATSALDEAN HASIKO DIRA Azpirotzko jaiak. Lehengo ekitaldia herri afaria izango da. Sorgintxulo elkarteak bilduko dira azpirotz guztiak, mahaiaren inguruan. Ondoren, gaurdian dantzaldia hasiko da. Trikitilariak denak dantzaz jarri nahian ariko dira. Larunbat goizez atsedean hartu eta gero, bostetan, haurrentzako jolasak izango dira herriki plazan. Sari bikainak irabazteko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren hurrek. Bien bitartean, helduak elkarteak ariko dira, mus jokoan, nor baino nor. Gero, zortzietatik aurrera, dantzaldia izango da oraindik zehazteko dagoen trikiti bikote batekin, eta baita gaurdian ere.

Igandean, goizko 10:00etan abiatuko da erronda. Herriko gazteak etxe-etxe ibiliko dira, musika eta guzti, festa etxe guztietara zabaldu nahian. Etxeko andrea dantzan jarri, mokaduxo bat egin, eta hurrengo etxera. Errondak beteko du, hainbestean, goiz parte osoa. Arratsaldean, berriz, herriko bi gazte ariko dira sega apustuan. Plaza ondoko barrutian burutuko da desafioa. Zazpietan, aldiz, gaztetxoek pilota partiduak izango dira. Ondoren, eta hamaikak bitartean, Modesto orkestra-gizona ariko da giroa alaitzen.

Astelehena ere, San Esteban Eguna izanik, eta santu hori Azpirotzko zaindaria denez, jai eguna izango dute bertakoek. Eguerdiko meza iragarri dute, eta ondorenerako, hamaiketako. Arratsaldean eta gauaz, Modestoren musika izango da plaza-ko protagonista.

→ Urko Aristi

denbora pasa

XAMAR



Itsuen jokoak, jokoitsuak?

Badakite, ongi xakin ere, berdin dela... bo, tira! azantza zerbeit... gutxi, udako oporretan baitaude... ez izanik ere... Euskaltzaindiaren paper bat kexu aintz bezala, partidoen bi ele itsusia dela eta... funtsean deus ez.

Nola? Euskalerria Irratiarena? Ez, barka, euskaldunena, gurea... gu oldartu gaituzte, gu diskriminatzen gaituzte... Zenbat irratia aitzen ahal ditugu Iruñean? 20? 40? Zenbat Euskaraz? Euskalerria Irratia eta Euskadi Irratia (azken hau lemixikoari esker, berak hedatzen baitu haren seinalea) eta orai noiznahi hertsiko dute, bai ausartuko dira, makurragoak eginak dituzte.

Oi Nafarroa! Zer izan zen eta zer bilakatu den! Erran gabe doa, politikoki nor izan bagira historian baina, Nafarroan izan girela, eta anitzek bezala pentsatzen dut berreskuratu beharko genukeela ikuspegi hori... teoriar, praktikan lotsa niz arras. Hemen agitzen direnak ez dira inon gertatzen... zernahi eginik lasai dira, jendea ez da benetan mugitzen, ongi bizi baita.

Inkesten arabera Iruñeko herritar gehiengoak

euskararen alde omen da, eskoletan D eredu gaiti ari beti... baina gehiengo hori ez da mobilizatuko holako diskriminazioaren aintzinean... Parlatuak onartzen duela ETB ofizialki hartu behar dela? Eta zer? Zer inport zaito hori gobernuari? Deus ez, eta herriak? zer egingen du herriak? Botoa eman txinto-txinto, demokrazian gaudelako, eta nori? UPN-PSOEri naski, eta hurrengo artio, bihar artio, aio!

Madrilen egun hauetan, itsuen jokoetan, espafiolak ari omen dira izigarritzko domina saldo biltsen; ikusiak ikusiz harritzeko ez dena... edo bai?

Lizarra • XVII. mendeko monasterioa zinematoki

San Benito monasterioan hiru zinema areto eraikiko dira aurki

Lizarrako Udalak San Benito monasterio zaharrean zinema eraikitzeke erabakia onartu du, PSOE, LKB eta EA alderdien botoekin. UPN abstenitu egin zen.

ALDERDIEK EZTABAIDA FRANKO izan dituzten arren, Lizarrak hiru zine areto berri izanen ditu aurki. Alderdi erregionalistaren ustetan eraikina Nafarroako Gobernuaren jabetza den bitartean, Lizarrako Udalak ez luke onartu behar lanen hasiera. Gobernuak irailaren 15era arte ez dio jabetza utziko Udalari eta bitartean ez litzatekeela aurrera pausorik eman behar uste du UPNk. Onartu berri den proiektuaren aurrekontua 300 milioi pezeta ingurukoa da (12 milioi libera) eta lanak irailean eraikina Udalari pasatzen zaionean asiko dira. Lanak egiteko aurreikusita dauden epeak betetzen badira, zortzi hilabeteko lanen ostean, zinemak prest egongo lirateke datorren udaberriko.

Eraikina 2.990 metro kuadroko orube batean dago kokatua, Los Llanos berdegunearen bihotzean. XVII. mendeko monasterioa izanik, urtetan moja beneditarren etxea izan zen. Hauek 1971an eraikin berri batera joan ziren. Geroztik, monasterioaren egoera okerrera joan da eta erabi-



Zinemak San Benitoko komentuan eraikiko ditu Udalak.

KRISTINA BERASAIN

li ez izanak zaharkitu egin du. Bario kultural handia duen monasterioaren itxura ikusirik, Nafarroako Gobernuak eraikina erosi zuen 1990ean berrerabiltzeko asmoarekin. Orduan monasterioari beste erabilera bat emateko helburuaz hitz egin zen: hotela edo zahar etxe. Dena den, proiektu horiek guztiak ez dira gauzatu eta Lizarrako herriak behin eta berriro eskatu izan duen proiektua abiatuko da zinemak eraikitzean.

Bi solairu eta 1.000 eserleku

Eraikuntza berriak bi solairu izanen ditu. Behean hiru zine areto

kokatuko dira, taberna, sarrerak erosteko leihatila eta bainugelak. Proiektuak aurreikusten duenez, lehenengo aretoak 572 ikusle lekutuko ditu. Gela horretan zinema ez ezik, bestelako ekitaldiak ospatu ahal izanen dira: kontzertuak, antzerki saioak edota hitzaldiak. Beste bi aretoak 216 eta 198 eserleku izanen dituzte eta pelikulak pantailaratzeko erabiliko dira. Beraz, guztira 1.000 eserleku inguru izanen ditu. Bestalde, lehenengo solairuan kokatuko dira zinema proiektagailuak, aldagelak eta banbalinak.

Beraz, aintzinako eraikin bere-

zia punta-puntako zine teknologia biltzeko prest egonen da aurki. Barruko itxurak eraikina modernoa dela agerian jartzen badu ere, kanpoaldeari so egin eta XVII. mendean gaudela pentsatu daiteke: izan ere, hainbat elementu mantenduko dira. Esaterako, harresi gehienak mantenduko dira, eliza eta abside aldekoak izan ezik, hauek oso narriatuak baitaude. Hala ere, dorrea zein aintzinako hegiak berreraikiko dira. Kudea-keta Golem enpresak eramanen du.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Turismoa Sakanan

Guaixe hilabetekaria Plazaolako Patzuergo Turistikoari buruz mintzatu da azken zenbakian, erakunde horrek azken aldian bere baitan egin dituen berrikuntzak aitzakitzat hartuz. «Ekainaren hasieran Lekunberriko tren geltokiaren inaugurazio ekitaldia egin zuten. Uztailaren hasieran, berriz, Aralar mendiko kobazuloak, historia eta historiaurrea eta ezaugarri geologikoak ezagutzeko eskaintza turistikoaren aurkezpena egin zuten. Horretaz gain, berri on bat jaso dute azken aldian: Espainiako Ingurugiro Ministerioak onartu berri du 150 milioiko dirulaguntza Bide Berdeak behar bezala egokitzeke. Honek guztiak

badu Sakanarekin harremana, Irurtzungo Udala Plazaolako Turismo Patzuergoan sartu berri baita, baita gure eskualdeko lau enpresa ere».

Kontu horiei guztiei buruz, patzuergoko gerente Maitena Ezkutarirekin hitz egin du **Guaixe**-k. «Plazaola Patzuergoak eskaintzen duen zerbitzurik garbiena promozioa da. Ekintza gehienak kide horretatik abiatzen dira. Urtero aldizkaria argitaratzen dugu gure bezeroen zerbitzuen informazio guztiekin. Horretaz gain, feria anitzetan egoten gara Nafarroako Mendialdea ezagutzera ematen, bai hemen, baita kanpoan ere. Honetaz aparte

gure bazkideendako zerbitzu berria abiatu dugu aurtien, ostalaritzako lan poltsarena hain zuzen ere», aipatzen du Ezkutarik, **Guaixe** aldizkariako azken zenbakian.

Plazaolako gerentearen ustez, turismo patzuergoaren lana oso garrantzitsua da: «Patzuergorik edo tartekaririk gabe oso zaila da gauzak antolatu edo bideratzea. Koordinazioa nahitanahiezkkoa da. Sakanako herriei zera esango nieke, aukera honi buruzko hausnarketak egitea merezi duela. Sakana guztia saltzea errazagoa izango da herriz guztietako ibilbideak aldi berean sustatuz gero Iturmen-di edo Etxarrikoek banaka eginda baino».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Espazio hutsak

Billabesan, Magdalenako zubia-aren ondotik pasatzen ari girela, konturatu nintzen nola nire aurrean zeuden bi mutu zubiari buruz ari ziren. Eskuekin ulertzen ez nituen esaldi osoak osatzen zituzten eta momentu batean iruditu zitzaidan arkua aipatzen ari zirela, eskuekin arku bat osatu baitzuen batek edo, zehatzagoa, bi eskuak gerturatu leku huts bat osatu sortu zuen batek. Azken finean eskuen artean ez-zegoenari begira ari zen eta ez eskuetara, Magdalenako zubieraren espazio hutsa adierazteko.

Ederrak eta garrantzitsuak dira zubien espazio huts hoiek: hortik ibaia igarotzen da zubirik ez balego bezala. Horrela ez izatekotan tabike bat izango genuen eta ez zubia. Eta ez da erraza estruktura haundi eta astun batean espazio huts bat eraikitzea. Mutu hark egin zuen bezela eskuei ez baizik eta eskuen arteko hutsari begiratu gero modu diferentean ikusten da arkitekturaren historia. Arkua arkua da espazio hutsari esker. Zutoinak espazio hutsa estaltzeko makuluak, halabeharrezkoak, dira. Zein da piramideen ekarria? Esoterikoe-memeloek darabilzkiten alturak eta zabalerak edo barru barruan gordetzen duten espazio huts, garaipen hori? Piramideen barruan egiptoarrek, azkenean, lehendabiziko piramideek lurra jo eta handik mila urtetara, espazio hutsak sortzea lortu zituzten -sortu, eta ez utzi-, eta hor diraute zutik. Erromatarrek espazio huts haundi bat estalia eta zutoinik gabekoa ireki eta kupula deitu zuten, gaur egun ere **iraultzailea** hitzarekin izendatzen duguna. Txillidak Timanfayan **espazio huts bat sortu** baino gehiago **espazioa hutsik utzi** nahi du. Mutuen eskuaren erdian tala-droa sartu nahi du eta zuloan bere sinadura jarri.

Oteizak mendian soroak ixten dituzten **atakak**, **espazio huts estalia** bezela itzuli zuen eta filologoez oraindik barrezka ari dira. Ongi da, bale, etazue **zientzia** deitu, baina horrelako ekarriak dira gauzei gehiago, hobe, ezberdin begiratzen laguntzen digutenak eta batzuetan, gainera, eta zirrikitu huts batetik, poesia bera ere ikusteko aukera ematen digute. Segurasko Oteizaren eraginez, bai mutua, bai ni, eskuei ez, baizik eta eskuen artean dagoen hutsari begira geunden.

Santiago gezi horia jarraituz

Hainbat tokitatik etorritako erromesek Nafarroako Donejakue bidea zeharkatzen dute egunotan Galiziarantz

Lurralde askotatik etorritako erromesak Donejakue bidea zeharkatzen ari dira egunotan Nafarroan. Santiagora doaz, nondik igorotzen den esaten duen gezi horiari jarraituz; oinez, bizikletaz eta baten batzuk zaldiz. Nekeak gailentzen dituenen, herrialdean dauden bederatzi aterpeetako batean hartzen dute atseden.

EGURALDI ONAK ETA OPOR GARAIAK LAGUNDURIK egunotan Santiagorantz doazen milaka erromes bistatu daitezke Nafarroan. Txinaurrien moduan, presarik gabe baina gelditu gabe zeharkatzen du Donejakue bidea ibiltariak. Nafarroa Beheretik hasi eta Garaia igaro arte erromesak 800 kilometro inguru egingen ditu: hainbat txenda, errepide zati, herri, eta Iruñeko hiria zeharkatuko ditu, besteak beste, ibilean ariz. Azkarrenak bidean 23-24 egun egingen ditu, eta motelago doanak, hilabetea. Tartean, tokian tokiko jakiez, naturaz eta bideak eskaintzen duen arte erromanikoaz eta gotikoaz gozatzeko aukera izanen du erromesak.

**Erromes bat
atseden hartzen
Amaiur ikastolako
kiroldegian.**
●
MIKEL SAIZ



Askok atseden lagunen baten etxean edo, besterik gabe, belatso baten magalean hartzen badute ere, gehienak Donejakue bideak erromesentzako prestatuak dituen aterpeetan kentzen du nekea eta igarotzen du gaua. Nafarroak bederatzi aterpe ditu: Orreagan, Larrasoan, Zubirrin, Arren, Iruñeko San Cernin elizan, Garesen, Lizarran, Urantzia eta Bisanan. Batzuk bertako udalarenak dira eta besteak elizbarrutiarenak. Orreagakoa da aterpe zaharrena eta sona handiena duena; besteak nahiko berriak dira.

Erromesen %90ek aspalditik 'bide frantsesa' deitutakoa erabiltzen dute Santiagora iristeko, baina bada beste bat, Iparreko bidea adiera hartu duena, hain zuzen ere. Ibilbide hori auzeratuz gero, Lapurditik sartuta, Iruñeko Santiagoko bidetik hartu eta Euskal Autonomia Erkidegoa, Santander eta Asturias zeharkatuz iristen da erromesa Galiziako hiriburura. Bide frantsesa beriz, Penintsulan Birkonkista gertatzen denean Nafarroako Santxo Handia erregeak ezarritakoa da. Bide horrek bi sarrera ditu: bata Somportetik Jacara doana eta handik Lizarraldeko Gares herrira iristen dena, eta bestea, Donibane Garazitik, Luzaide, Orreaga eta Iruñea igaroz toki berera ailegatzen dena. Lizarraldeko herrian bat egingen ondoren bide bakarra da Santiagoraino. Erromesak Biana izanen du Nafarroan azken pausaleku eta handik Logroñoko bidea hartu eta Galiziarantz iritsiko da. Jose Antonio Corriente, Nafarroako Donejakue Bideko Lagunen Elkartearen presidentek dioenez, Nafarroa Beheretik hiriburutik datorren bidea da ederrena. «Beste bideak gutxietsi gabe, hobekien seinaleztatua, zaindua eta babestua dagoen bidea da 'bide frantsesa' deitutakoa. Era berean, artistikoki ere interesgarria da, gotikoaren eta erromanikoaren adibide garbienak eta politenak aurki ahal dituelako erromesak. Dena den, Donejakue bideak hartu duen garrantziarekin oharturik, beste bidea mugiarazten ari dira orain».



Orreagakoa da Nafarroan dagoen zaharrena, eta Iruñekoarekin batera erabiliena. ● MIKEL SAIZ

Iruñeak egoitzarria behar du

Nafarroan Donejakue Bidea, oro har, ongi zaindua eta babestua dago. Europako Batasuneko Kontseiluak onartutako seinaleztatena eta zainketa arauak ezartzen aitzindari izan zen. «Zaila da galtzea bidean. Badira errepideak hartu dituzten bideak eta horietan ondoan xendak egin zaizkie», azaldu du. Jose Antonio Corrienteren ustez, egun arazoa Iruñea da. «Iruñeak ez du ahalmenik etortzen zaizkion erromes guztiak lekutzeko. Hori herrialdeko beste herriekin konparatuz gaizki dago. San Cerningo egoitza huskeria da. Amaiur ikastola bideak jartzen digun atakatik ateratzeko modua da. Esker ona

ematen diogu Udalak ez dago telefonorik eta ez dago internetrik erromesen aterpeko», azaldu du. Elkartearen administrazioa bidearen garrantziaz behar du eta beste herrialdeetan egin den moduan azpiegiturak eskaini behar luke. «Iruñeak ez du ahalmenik etortzen zaizkion erromes guztiak lekutzeko. Hori herrialdeko beste herriekin konparatuz gaizki dago. San Cerningo egoitza huskeria da. Amaiur ikastola bideak jartzen digun atakatik ateratzeko modua da. Esker ona

Orreaga: lehen pausalekua

Orreagako Kolegiata-eliza da Donibane Garazitik abiatzen den erromesak aurkituko duen lehen pausalekua. Nafarroan dauden aterpeetan zaharrena XI. mendekoan den Benefiziadunen etxeak garbaraz eta bigarren solairuan dago erromesen aterpea. Leku xumea, ixila eta bildua, gogoetarako aproposa. Maria Jesus abegi-egile donostiarra


Nagusiko 59 zenbakiko etxea egokitzeko aukera begiratu dute. «Etxe mehar eta luzea da, erortzeaz dago eta lagun bakarra bizi da. Ez litzateke sekulaldea baina bai duguna baino hobe», bukatu du elkartearen presidentek. Donejakue Bidea Biziberritzeko Plana egin zuen Nafarroako Gobernuak 1987an. Geroztik 2.800 milioi pezeta erabili dira haibat lanetarako (112 milioi libera), eta aurtan eta datorren urtean 316 milioi pezetako lanak aurrekusi dira. Dirutza horretatik puska bat egoitza berri batentzako izanen dela espero du Corriente.

asteburuan eta abuztuaren hasieran espero den jende andana laguntzeko etorria da Orreagara. Egunotan bera, eta Susana, Rotherdamdik (Holanda) etorritako beste abegi-egileak uzkur dabilta lanean. Abegi-egileak Donejakue bidea egin duten erromesak dira eta haren aldeko elkarrekin batekoak. Aste Santutik urrira, aterpeak zabalik dauden bitartean, hamar egunez

egin behar dute lan estalperen batean. Beraiek garbitzen dituzte bideko aterpeak eta erromesak kokatzen dituzte. «Urtero oso gustora egiten dugun lana da, jaso duguna itzultzeko modua da, nolabait», azaldu du Maria Jesus. Orreagako aterpeak 70 ohe ditu eta arratsaldeko hirurutan zabalitzen da, Donibane Garazitik datorren erromesak ez direlako lehenago iristen. Aterpea doan da eta jendeak ematen dituen diru-sariekin egiten dira garbiketa eta behar diren moldaketak. Sukaldea eta otorduak egiteko areto bat ere badute. Erromesak gau bakarra igaro dezake, bi gau gelditzeko aukera, 400 kilometro daramaten ibiltariak (Austria, Holanda edo Frantziako iparraldetik datoznak kasu), edo oso gaizki daudenak dute. 22:00etan argiak itzaltzen dira eta isiltasuna dator. Donibane Garazitik iritsi berriak ziren bi neska gazte kokatu bidenabar jende gehien abuztuaren 2an eta 3an espero dituzte azpimarratu zuen M^a Jesus. «Egunotan aterpeko oheen erdiak beti izan dira eta egunen batean guztiak ere. Gaur jadanik 26 kokatu ditugu eta oraindik arratsaldeko 5:00ak dira. Abuztuaren lehenengo egunetan guztiak beteko dira eta izanen da lurrean lo

**Jose Antonio
Corriente**

«Amaiur
ikastolako
kiroldegian
Armada 70
ohe jarri ditugu.
Hala ere, nahikoa
lan jendea
egokitzen.
Egunotan,
frontoian lo egiten
duenik ere izan
da»



egingo duenik ere». Biharamunean nahi duenak meza entzuteko aukera izanen du 8:00etan. Galtzeko bidea jarraituko dute, edo Kolegiata, museoa, Santiago eliza edo Antso Azkarrenen hilobia ikustera joan. Nolanahi ere, erromesak gezi horiak markatzen duen bidea hartuko du Aurizperriruntz. Iruñera iritsi baino lehenagoko ibilbidena Larrasoan, Zubirrin edo Arren atsedena hartzeko aukera izanen du. Dena den, Orreagako gain, egunotan erromes gehien biltzen dituen pausalekua Nafarroako hiriburuko Amaiur ikastolan egokitu duten aterpea da.

Iruñean ez dago toki nahikorik

Aste Santuan zabaldu zuten Iruñean San Cernin elizako kanpandorrean dagoen aterpea. Hogei ohe besterik ez dituenek, hiriburura hurbiltzen den erromesen gehiengoak kanpoan gelditu izan da. Corriente dioenez, hiriburutik erromes asko igarotzen dira, lo gelditzen direnak gutxiengoak diren arren. Hala ere, guztiak lekutzeko arazo larriak izaten dituzte udan. «Pasatu asko pasatzen dira baina lo gutxiagok egiten dute. San Cerningoak 20 ohe ditu bakarrik eta egunero 50 lagun esaten genien alde egiteko ez zirelako sartzen», gaineratu du. San Cerningo aterpea oso txikia zela ikusirik Iruñeko Udalak, joan den urtean egin moduan, Amaiur Ikastolako polikrodegia utzi dio elkarteari. «Armada 70 ohe jarri ditugu. Hala ere, nahikoa lan jendea egokitzen. Egundotan, frontoian lo egiten duenik ere izan da».

egunotan batz-besteak 60-70 lagunekoak da eta datozen egunetan gehiago espero dira», dio Corriente arduratuta. Aterpea eguerdik 12:00etan zabalitzen da eta 21:00etan itzaltzen du argia. Orreagakoa ez bezala, Amaiurko SOZ (Soldadutzaren Ordezko Zerbitzua) egiten ari direnak eramaten dute elkarteko kideen laguntza. Miguel Casares elkarteak partaideak aterpea ez ezik, erromesak bera ere hiltz egitea ere eskertzen duela dio. «Zerbitzuaren oinarria erromesekin hiltz egitea da. Behar duen laguntza eman eta harekin egotea. Horien gehigarri dira zerbitzuak: dutxak, bainugelak, mediku zerbitzuak eta oheak».

Hala ere, kezka gehien datorren urteak sortzen diren Donejakue Bideko Elkarteak kideei. «Datorren urtean Konpostelara izanik, harkundea nabaria izanen da. Aurrekoa 1993an izan genuen eta Santiagoko kasik 100.000 erromes dokumentatu ziren. Kontuak egitea zaila den arren, horietatik asko Nafarroatik iragan ziren eta gauza bera gertatuko da 1999an», azaldu du Corriente.

Joan den urtean Donejakue bidean diren Nafarroako aterpeetatik 33 lurraldeetako jendea iragan zen, eta aurtan ere ohiokak diren frantziar, alemaniar, ingeles eta italiarrek gain, japoniarrek eta brasildar asko iragaiten ari dira. Gehiengoak oinez egiten du bidea, nahiz eta txirrindulari gero eta erabiliago den (%20 inguru), eta batenbat zaldiz.

Arazoak arazo, erromesak bere bidea jarraituko du. Hitz egin baino atsedena hartu, luzaketak egin eta hantetan ateratako babak sendatu nahi izan ditu, eta ez dio grabagailuari deus esan nahi izan.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Oñatiko izkribuaz eta beste

Euskaraz ondutako eliz literatura klasikoari datxezkion balioen artean, pentsatu baino usuagoetan sartu izan den ziri politikoa aipatu beharra dago, beti ere, herri xehe euskaldunari igorria, tradizionaltasunaren mezulari



JUAN JOSE MOGEL ELGEZABAL idazle bizkaitaradunak 1816.ean bere Juan ta Francisca senar emazte nequezialiac, seme alaba ta familia ondo azten hasierako eskuizkribuaren estraineko edizioa karrikara eman zuenean Baseerritaar jaquitunaren *echeco escolia* izenburupean, aski argi utzi nahi izan zuen zertarako eta nozentzako izkiriaren zuten: «Baserritarretara, batez ere, zuzenduten da liburu au, diralako eurak, geijeenez, euskalzaleenak ta, liburu asko edo andijak irakurteko asti gitxi eukirik, uste izan dot biar dabeela liburutxu bat, zañetan ikasi daikkeen biar dabeen guztija, nekazari garbi ta kristinai onak izateko».

Hau guztia, zenbait elizgizon euskaldunek garai bertuan baserri giroko gizartean ezarri nahi izan zuten hezietarekin bat kokatu beharra dago. Alde batetik eredu ilustratuek sortu basatiaren idealatik abiatuta, eta urren zetorren erromantizismo berriarekin herrira bueltatzeko ideia uztartuz, gizarte zahararen balioak mantentzeko saioa egin zuten, aitzineko *status*-en aldeko saioa alegia. Finean, Mogel-txiki hau karlista amorratua genuen; 1834.eko urrian Karlos erregeak Bizkaian eratu zuen Aldundi karlistaren ahaldu kargua izan zuen ganbotarren aldetik, eta gerrate ostean, kanporatuta ibili eta gero, 1842.ean arazoein ibili zen berriz ere Markinako beste apezekin batera Pedro Belarde kapitain karlista eta bere familia aterbetzeagatik. Horrela beraz, Juan Josek bere liburuan nekazarien betebeharez aritu zenean, hain gutxi zerutiarra zen elizari zor zitzaizkien hamarren primiziez honela ziozkun: «Alan, Eleixa santubak lege barrija, leenguren irudijan, esan diran ta beste errazoe askogaitik, aginduten

ditu amarren primizijak garbijenetik; ta gure obligazioia da zuzen pageetia. Nekazari onak, ez bakarrik zuzen, baita bere pageetan ditu pozik, Jangoikuari jakon zorra legez, ezaguturik gauza guztien jaubetzat».

Giro hone-tantxe ere, Mogel zahar-rak ondu bere Peru Abarka ulertu beharko litzateke, baita ezezagunago iragan zaizkigun beste idazkirik ere. XVIII. mende amaierakoa edo XIX. mende hasierakoa den nekazarien ikasbiderako eskuizkribua, Oñatiko Olabarrieta auzoko Arrazola etxean idoro zena berbarako. Nekazari euskaldunen instrukzioarako idatzia da, berauek «guizarte-co barri, erritic urten bagaric jaquin daguien». Nekazari kristau on bati dagozkion dotrinako puntu batzuen azalpena zabal ez ezik nekazartitzaren goresmena, merkataritzaren gaitzespena eta euskararen egoera lazarria ageri dira: «Gueren amen sabeletic dacargun eusque-razco izcunia eder utsagaz gente artian aguerquetaco daucagun lotsa». Dataduna ez bada ere, bertan frantses iraultzaren berri jasotzen da, baita Bilboko eta Gasteizko matxinadana ere: «Inoizco denporan Españan guertatuco balitz Ynglaterran eta Olandan guertatu zana, eta atzo guere beguiacaz Francian ecusi doguna; Jaungoicoac bada gorde daguiala Españaco Erreinu zorioneco au ecusgarri arerianetic, eta oñian euqui dogun eta dauca-gun, Gobiernuba eta Ynquiszinoco Tribunale santuba. Eldu gara, nire aisquidia,

dempora zatar eta negarrizcuetara, zeñetan ia Fede santuba, guere salvazinoraco dan arguitasun bacarra illundubaz doian. Nundic etorri da Franciaco galdu biarra?

Nundic Españan

aimbeste negar garri eta Jaungoicoaren azote, nola dirian gose, izurri, lur icara andiac, eta guere egun guztietan ecusten ditugun pestiaren ondorengo guerrac, beñere guelditzaca?




Ecusi dituzu nire adisquidia machinada negar garrizco oneic Franciaco erreinu guztian, Españan ere bai guere ateetan Vitorian eta Vilvaon. Ez eguizu parteric artu onelaco machinadetan, besteric onetaraco puztubagaz, edo laguntasuna eguinagaz, eta bai jaquingo bazendu besteren batzuben asmua Machino jaguico, azpitic emun biarco dozu contu demporaz, gaitza eragotzi daiquianari, eta contu emute au aguin biarco dozu zeure confesore, errecore edo beste guizon juiziosoren baten bitartez».

Argitara gabe dirauen lan honen bi orraztaldi ditugu, bata lehen idazketa da, zirriborro guztiekin: *Osaba baten instruccinuac bere yllóba ezcondu eta necazari baten-tzat bere eta bere familiaren gobiernu oneraco jaungoicoaren legue santubagaz conforme, eta bigarrenak beharreko aldaketa guztiak eginak ditu: Errectore jaun baten instruccinuac ezconducir vici dan bere adisquide necazari batentzat bere eta bere familiaren gobiernu oneraco. Egun, Oñatiko liburutegian dautza bi eskuizkribuak.*

etorri ahallean

Patziku Perurena



Jatorkeri izpi batzuk

HERRIEN SORRERAN eta egiturari, begi bistako izan da garaian garaiko merkatuen eragina; horretan apenas aldatu den gizakiaren joerarik. Eta gai honen inguruko bilakaera historikoa eta filologikoa zuhur uztartuz, etnozentrisimo motzera mugatu beharrean, guregan eragin nabaria izan duten gizaldi arrotzetara luzatuko bagenu jakintzaren argia, gauza asko argituko genukeela uste dut euskaldunok. Gaitz honen lekuko, honatx hitz sorgin batzuk, elkarren orpoz orpo:

Batzar: Etimologia bitxi asko bilatu zaio, baina sinesgarriena betegintzarre, gorazarre, maitasarre, biltzarre... gisako hitzen txerto bereko egiten duena; hartara, euskal demokrazia zaharra euskarak aspaldidanik jasoa daukala argudiatuz. Ez ote dugu ordea, pertsiarren bazar (merkatu, bilera publiko) delakotik geureganatua hitz hori, eta gero, antzeko hitz asko bezala, merkatutik politikara iragoa? Larri ibili.

Azoka: Oraintsu feria esanahiarekin berpiztu bada ere, bere esanahi zaharra, alondegi, herriko merkantzi biltegi edo gisako zerbitzu zuen. R.M. Azkuek gaztelarazko lonja, alhóndiga esanahiak atxeki zizkion, eta hitz honen merkatutik politikarako bidea, Goizuetako 'Azoka' etxeizenak (egun 'Ximon Harategia' denekoak) erakusten digu edeki; izan ere, XVIII mende azkenera arte 'Errikotxe' izan-dua baitzen; eta berria egin ondok ere, XIX mendean oraindik, 'Errikotxe zarra' deitzen zioten. Eta badirudi, azoka hitza, alondegi edo almazen bezalaxe, arabieratik datorrigula.

Udala: Hala leitzen nion Juan Gorostiagari aurreko batean: «En Otxandiano hay un callejón sin salida, llamado Udaletxe, al estilo árabe, donde el KADI o ALKAIDE, ejercía en su domicilio el cargo asesorado de los ADUL (plural) 'consejeros'. Durangon ere halatsu 'Udalaetxea', herriko

kontseju zaharra. Badira ordea, erro bereko toponimo gehiago: Udala, Udalaiz Mondragoen, edo Larragan XIII. menderako ageri den 'la vinea de Udal ondo'. Baliteke beraz, udal hitza ere, alkate bezalaxe, euskaldunok arabiarrei zor izatea.

Auzo: Juan Gorostiagak dioenez, arabieratik datorrena genuke: «de HAWZ con vocal completa final -O/-A. (Alfoz: alhawz; afueras, exterior)». Bide horretatik, begiratzekoa litzake hitz honen euskal semantika osoa: 1: barride, aldamaneko; 2: herritik kanporako alderdia, etxe edo borda sail batez osatua; edota auzapez, auzolan, auzobatzar, auzolagun, auzolotsa, auzolapur... bezalako hitzetan jasotzen duena.

Barrio: Arabierazko bárri hitzak 'mugaz kanpoko' zerbitzu esan nahi du, eta gure auzo hitzaren semantika beratsua jaso du erdarazko barrio (afueras, arrabal) hitzaren bitartez, eta badirudi sorburu berbera dutela euskal barrio, barride, barraiata (sakabanatu) hitzek. Eta ez ote du euskal barri/berri hitzak ere sorburu bera? Euskal (E)txabarri beti Casanova izan ote da? Ez ote du inoliz adierazi, egun etxebarren, Etxebertz, Bazterretxe delakoei darian 'lekutasun' kutsu horrenik?, behiala arabiar bárri hartatik hartua? Ongi aztertzekoa litzake, esate bateko, K. Mitxelenak urrutit hitzaren zentzu zaharraz dionaren gisan: 'Muça de allent la puent', zubiz urritiko judua Tuteran 1280an, eta bada zentzu bereko toponimo zaharrik asko; edo J.M. Iribarrenek barride/lehenauzo hitzez diona ongi aztertuz.

Esanak esan, gauza jakina da, jendeolde arrotzek (frankoe, juduek, mairuek) gure herrien egituratzeko zaharrean eta endemas merkataritzan eta horrek berez dakarren lexikoan, izan duten eragin izugarria; eta eragin horri bizkar emanez, gure hitzen etimologiari beti euskal erroa bilatzeak, ez dirudi oso tentu oneko.

Ziria

• Motxorrosolo •

Lotsagabetasuna


TXIKITASUNAK ELKAR KOMUNIKAZIOA ERRAZTEN DU, BEREZIKI ZU BEZAIN txikiak direnekiko komunikazioa. Horrelakoetan, jaso-eman binominoak ezin hobeki funtzionatzen du, ez dira kasu bakarrak. Handiustekoena bestelakoa da. Neurririk gabekoa zenbait politikarien lotsagabetasuna. Kasu gehienetan ezjakintasuna dute arrazoi, ez zaie ausardirik falta. Gari aldekoa izanda ere, Suomik kostalderik ba ote duen galdetza ere.

Xavier Toubes

◉ Eskultorea eta zeramista

«Zeramika lanean ariz aurkitzen da»

Xabier Toubes galiziarra 'Buztinaren inguruan: zeramikari buruzko elkarrizketak' tailerraren zuzendaria izan da asteen zehar Zangozako Karmen klaustroan. Zeramika betidanik dagoen artelana izan arren, lanean ariz berritzen dela frogatu nahi izan du irakasleak gaur bukatuko den ikastaroan.



● MIKEL SAIZ

sosiaia

Beroa eta egarria gainetik kendu nahian, mertxika zukuaz beterik zegoen edalontziari zurrutada egiten zion noizean behin. Urduria, gogoz mintzatu zen egunero berritzeko hainbeste aukera ematen dizkion zeramikaz.

■ **Nola hasi zinen zeramika lantzen eta ezagutzen?**

Egun arrunt ezberdina den Espainiatik alde eginez Londre-
ra joan nintzen 1969an. Han Espainiako Bankuan aritu nintzen. Banketxe batean lanean egoteak paradoxa eta tentsio gogorak sortzen zizkidan. Gaue-
tan zeramika egi-
ten hasi nintzen.

Gorputzarekin eta eskuekin gauza ederrak egitea nuen amets. Zeramika gustatzen zitzaidan objektu moduan, gauza eder bat bezala non perfekzio eza haren parte zen. Den den, garai hartan egiten nuen zeramika funtzionala eta ederra izanen zela uste nuen, eta, aldi berean, mundua aldatuko nuela. Baina gero, bizitza aldatu zen eta ni ere aldatu nintzen. Egun ez dut egiten zeramika hori eta ez dut uste mundua aldatzen ahal dudarik.

■ **Beraz, egun zein da zure asmoa?**

Badut idealik eta zer diren esaten ikasi dut. Idealak garrantzitsuak dira, ematen didatelako indarra, gogo bizia, itxaropena, mugimendua; eta horrela gauzak egiten jarraitzeko laguntza badut. Dena den, badakit gauzatu nahi ditudan idealak gehienetan ezinezkoak direla. Gainera, sozialak egiteko lotsagabekeria dut. Ez

zait hainbeste interesatzen ideala hemen dagoenaz ihes egiteko, parte naizen basakerian bizi daitekeen ideala baizik. Holandan zuzentzen dudana zentroa nahiko utopikoa da. European Ceramics Work Centren (Lan zeramiko-
ak ikertzen dituen zentroa) Munduko herrialde ezberdine-
tako hamabi artistak bizi eta lan egiten dute, eta eguneko hogeita lau orduetan zabalik dago. Lan egiteko baldintza hoberenak eskaintzen dituen tokia da: zehaztasun eta berri-
kuntza teknologiko handiak. Lan egiteko ahal den askatasun gehien lortu nahi da eta egun ideia hori nahiko berritzailea da, lanean ariz aurkitzen delako.

■ **Zeramika lantzeaz gain, eskulturak egiten dituzu eta pintatzen duzu. Nola uztartzen dituzu hiru arteak?**

Pintatzen aritzen den artista naiz eta erabiltzen dut zera-
mika adierazpen bide bezala.

Zeramika interesatzen zait malgutasun handia duen materiala delako eta eraldakuntzaren ideia itxurazkoagoa delako. Lanean hasten zara oso balio ekonomiko gutxi duen materialarekin, ez du formarik, dena da posible, eta artistaren partehartzearekin zerbait bilakatuko da. Era berean, zeramikak sona handia du, beti egon da gure artean. Landu, erosi, saldu, zizelatu, artea eta artisautza izan da munduko kultura guztietan oso aspalditik, horregatik du sona hori. Egun beste une batean dago. Posmodernitate garaiotan dena egina dagoela

dirudi. Orduan zertara dator gurekin betidanik egon den zerbaitekin lanean aritzea. Dena den, gehien interesatzen zaidana da gorputzak eta buruak berarekin lan egiten uzten didatena.

■ **Egun arteaz mintzatzean pintura, eskultura, arkitektura eta teknologia berriekekin egin daitezkeen aukerak dira nagusi. Zeramika bigarren maila batean gelditu da?**

Berpizkundetik zeramika beti kanpoaldean egon da, baztertua. Horregatik oraindik asko dago egiteko eta hori interesantea da. Dena den, artean dena posible dela frogatu den unera iritsi gara. Galeria batean txisa egin daiteke, kea, haizea, eta hori artea da. Egin egin behar da.

■ **Ikastaroan artearen eta zeramikaren inguruan elkarrizketa bat mahaigaineratu nahi izan duzu. Lortu duzu?**

Elkarrizketa proposatu du artearen eta zeramikaren inguruan. Gauzak egitea hitz egiteko aitzakia da. Idealak planteatu ditut eta saiatu naiz gauza konkretu eta praktikoekekin etxera bueltatzen, han jarraitzeko. Ez dut deus esateko praktikotasunari buruz, etxera nor bere buruarekin pozik joateaz ari naiz. Horrelako ikastaro batean egin dezakedan bakarra ilusioa ematea da. Artistaren ametsari hizkera jartzea.

Xavier Toubes Galizian (Coruñan) jaio zen duela 50 urte. Lana dela eta Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan bizi izan da eta egun Holandan pausatu da. Hertogenboschenen, Amsterdametik ehun bat kilometro dagoen European Ceramics Work Centreko (Zeramika lantzen duen zentrua) zuzendaria da. 1992ko ilbeltzan ireki zen eta geroztik lurralde guztietako 500 artista baino gehiago iragan dira handik.

■ **Zeramikaz landa, pintatu eta idatzi egiten du. Bere liburuetan lanbide duenaz mintzatzen den arren, amets eta idealei buruz ikiritzen du, batez ere. «Egiten dugunari hizkera ematen saiatzen naiz. Bizi ahal izateko estrategia politikoak tajutzen ditut eta poetikoak bizirik egoteko. Sozialki periferian gaude baino ez nau kezkatzen» dio gogoeta eginez.**

2000. urtean Holandako zentruarekin duen kontratua bukatuko zaio, eta beste toki batera joanen da. Zeramikaren prozesuarekin egin daitekeenaz oso adi egon nahi duenentz, porzelanazko bi metro inguruko bi pieza egiten ari da eta oso irudi sotilak agertzen dituzten xafia batzuk. «Edertasuna jarraitzen dut, zerbait erakartzea eta lotzea», bukatu du.

■ **Osasuntsu dago zeramika?**

Ez. Oso zaila da artista izatea eta artista moduan bizitzea. Hainbeste baldintza historiko eta tradizional dituen material batekin lanean ari bazara, are gehiago. Bestalde, mundu oso materialista batean bizi garen arren, zeramika oso gaizki ulertzen den materia da. Hain materialista den kulturak, kultura inmaterial bat sortzen dihardu. Ez dio ematen aukera ibilbide jakin batzuetan sartzeko, baina, aldi berean, indar gehiago eskaintzen dio.

■ **Asko eboluzionatu du?**

Zeramika oso mugatua da: materiala oso ohikoa da, baina aukera asko eskaintzen ditu. Zeramikak oso teknologia gutxi behar izan du beti. Gure zentroan labe guztiak informatizatuak daude eta etxetik ere jarri daitezke martxan. Erraztasuna eta energia aurrezteko aukera ematen dute, aurrezten den hori tailerrean, gehien interesatzen den tokian, erabili ahal izateko.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

Eromena

Naizelakoz, ez nago, errepikatzen zuen behin eta berriz Leolok. «Naizelakoz, ez nago (burutik joana)», zioen eta ordurako bazekien ur hotzez beteriko bainu ontzian sartuta akituko zela. Auskalo zertarako balio izanen zuten terapia zahar haiek. Eromenaz ari zen Leolo gaixoa. Ez dakit non leitu nuen gaur egun normaltasuntzat jotzen duguna adimen-eritasun modernoan batzbestekoa edukitzea dela. Estresa, depresioa, paranoia, eskizofrenia, handikeria eta abar zaku berean sartu, piska bat inarrosi eta gizaki moderno dugu emaitza. Hortakoz, denbora zoro hauetan psikotiko pittin bat ager zaitezke lasai asko, besteengan susmo txarrak sortarazi gabe, azken batez haiek ere, alegia, besteak, egoera berditsuan baitaude. Hori bai, eromen ttiki horri eusten jakin behar da. Oreka da kontua, oreka adimen-gaixotasunen artean, izan ere, horietako gaitz bat besteen gainean nagusituz gero, akabo!, normalengandik arraroengana pasatzen zara agudo, muga arrunt ahula baita. Kontua oreka da, diot berriz, baina garai desorekatu hauetan oreka erdiesteia ez da, ez, lan makala. Horregatik ez da ja ere arraroa hainbeste serie-hiltzaile ikustea: prostituten hiltzaileak, haurren hiltzaileak (eta mutiko hiltzaileak), eskaleen hiltzaileak... Beste batzuk, orde, pentsamendu bakarrean aurkitu dute aterpe desorekari aurre egiteko edo «auskalo» beren eromena bideratzeko, eta «hiltzaile kolektibo» bihurtu dira: ideien hiltzaileak, hizkuntzen hiltzaileak, alternatiben hiltzaileak, bizi moduen hiltzaileak, mezuen hiltzaileak (eta mezularien hiltzaileak)... Oreka da kontua. Oreka, «Naizelakoz, ez nago», zioen Leolok. «Fathers», «Yes son», «I want to kill you», «Mother», «Yes, son», «I want to argue», zioen Jim Morrison gizarajoak.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Tafalla:** Zezenplazan La Pollak, Kaos Etilikok eta Zirrosis taldeak joko dute gaur, 10:30etan.
- **Altsasu:** Martinikako Kali abeslariak kontzertua eskainiko du gaur, 22:00etan, Zelandi belardian. Bihar lekukoa hartuko dute: La vieja Trova Santiagera, Estudiantina Invasora eta El Cuarteto Patria talde kubatarak. Hirurak Kaliren ordu eta toki berean ariko dira.
- **Iruñea:** Arrosadiako polikiroldegian Tomas San Miguel arabarrak Ten euskal folklore ikutuak dituen ikuskizuna aurkeztuko du astelehen 21:00etan. Asteartean Michael Nyman ariko da, eta astezkenean David Peña andaluziarrak Dorantes pianoarekin interpretatutako flamenko kontzertua eskainiko du. Azken bi ikuskizunok ere Arrosadian dira 21:00etan.
- **Zangoza:** Marina Rosell abeslari katalanak kantatuko du datorren ostegunean, Carmengo auditoriumean, 22:00etan.
- **Zugarramundi:** Xose Manuel Budiño gaitariak Paralaia diskoa aurkeztuko du datorren ostegunean, 22:00etan, lezeetan.

ZINEMA

- **Atarrabia:** *Siete años en el Tibet* pelikula eskainiko da datorren ostegunean, 22:00etan, Bakearen parkean.
- **Altsasu:** *Men in back* pelikula pantailaratuko da datorren asteazkenean, 22:30etan, Foruen Plazan.

• Iruñea •



Magnum eta 1968

Magnum argazki agentziak 1968ko urte gogoratuko du egunotan Iruñean. Gotorlekuko Arma Aretoan antolatu den erakusketan 26 argazkilariren 80 argazki ikus daitezke abuztuaren 27ra arte. Orduko gertakarien lekuko; 68ko maiatza Parisen, Poloniako udaberria, Estatu Batuetako mugimendu beltzak, Vietnamen aurkako gerraren martxa Pentagonoruntz edota psikiatria berria Italian islatu dira argazki kamerak hartutako irudietan. Beste batzuren artean: Henri Cartier-Bresson, Marilyn Silverstone, Eve Arnols eta Raymon Depardon lanak bista daitezke.

ANTZERKIA

- **Atarrabia:** Sapo producciones taldeak *El Sow de Mister Tai* antzezlan taularatuko du heldu den asteartean, 18:30etan, Martiket Udal igerilekuan.

ERAKUSKETAK

- **Elizondo:** Tomas Sobrinoren margo erakusketa zabalik da Jaime Urrutia kaleko 23 zenbakian, abuztuaren 31 arte.
- **Bera:** Zabor-art erakusketa zabalik egonen da bihartik abuztuaren 16ra arte.

BESTELAKOAK

- **Berriozar:** Berriozarko Udalen Gazte Batzordeak gazte-entzako III. Argazki Lehiaketa antolatu du. Parte har dezake nahi duen 15 eta 30 urte bitarteko gazte orok, gehienez ere modalitate bakoitzean bi lan aurkezturik. Argazkien gaia librea da eta ondoko sariak jaso ditzaiteke: 50.000 pezeta zuri-beltzezkoetan, beste hainbeste koloretakoetan, eta 20.000 Berriozarko lan onenak. Lanak udaletxean aurkeztuko dira (Kaleberri 12) irailaren 30an 13:30ak baino lehen.
- **Iruñea:** Econavarrak Arte eta Ingurugiroa margo lehiaketa antolatu du. Lanak 150x150 cm-ko neurria izanen dute gehienez eta partehartzaileak bakarrik aurkeztu ahal du. Gaia ingurugiroa da eta egileak nahi duen materiala erabil dezake. Artelanak Arte eta Lanbide Eskolara igorri behar dira, irailaren 11 bitartean, 10:00etatik 14:00etara. Informazio gehiago nahi izanez gero dei 948-18-76-80 telefonora.